



e

2007ko maiatzeko HAUTESKUNDEAK

Hauteskunde Mahaietako Kideen Eskuliburua



MINISTERIO
DEL INTERIOR

SUBSECRETARÍA

DIRECCIÓN GENERAL
DE POLÍTICA INTERIOR



2007ko maiatzeko

HAUTSKUNDEAK

Hauteskunde Mahaietako Kideen Eskuliburua

Hauteskunde-Batzorde Zentralak gainbegiratua (2006-12-13)

Ministro Kontseiluaren Akordioaren bidez onartua (2007-02-02)





AURKIBIDEA

Sarrera	3
08:00etan	
1. Hauteslekuan bildu.	5
2. Hautestontziak, kabinak, gutun-azalak eta boto orriak ondo daudela egiaztatu.	6
3. Agiriak eta inprimakiak ondo daudela egiaztatu	7
4. Hauteslekua ondo dagoela egiaztatu	12
5. Artekariak aurkeztutako izendapen agiriak jaso, taloiekin erkatu eta artekariei kargua eman	12
08:30ean	
6. Mahaia eratzeko akta egin	14
09:00etatik 20:00etara	
7. Bozketaren hasiera.	15
8. Bozketaren nondik norakoa	16
20:00etatik Aurrera	
9. Bozketaren amaiera (20:00)	20
10. Mahaikoek eta artekariak botoa eman	21
11. Boto emaileen zerrenda zenbakiduna sinatu	21
12. Botoak zenbatu	21
13. Bozketaren emaitza aditzera eman	23
14. Boto zenbaketaren akta egin.	24
15. Bilkura akta egin	26
Mahaiaren eginkizunen amaiera	
16. Hauteskundeei buruzko agiriak dauzkaten gutun-azalak prestatu	28
17. Gutun-azalak aurkeztu.	29
Ordena Publikoa	31

Sarrera

Zergatik izendatzen dira herritarrak hauteskundeetan hauteskunde mahaiaik osatzeko?

Hauteskunde-mahaiko kidea izatea **herritarren betebeharrak sailhetsezina** da. Hauteskunde-mahaiaik 58.000 inguru izaten dira eta horiek osatzeko 500.000 pertsona baino gehiago behar dira, kide titular eta ordezkoren artean. Hauteskundeak ezingo lirateke egin pertsona horiek guztiak ahalegina egiteko prest ez baleude.

Hauteskundearen Araubide Orokorriari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak dioenez, hauteskunde-mahaiaik **Hauteskunde Administrazioa** osatzen dute hauteskunde-batzordeekin batera (Hauteskunde Batzorde Zentrala, probintzietako batzordeak, eskualdeko batzordeak eta, behar denean, autonomia erkidegoetakoak). Hauteskunde Administrazioaren helburua da hauteskundearen gardenetasuna eta objektibotasuna eta berdintasun-printzipioa bermatzea.

Hauteskunde Batzorde Zentralak 1995eko ekainaren 7ko Erabakian hauxe azpimarratu zuen: "Hauteskunde Administrazioaren barruan, hauteskunde-mahaiei dagokie bozketaren buru izatea, bozketaren nondik norakoa kontrolatzea eta botoak zenbatzea, Konstituzioari eta Legeari jarraituz. Eginkizun nagusi horiek zozketaz izendatutako herritarrei ematen zaizkie."

Nola izendatzen dira hauteskunde mahaiaietako kideak?

Udaletxean jendaurreko zozketa egiten da hauteskunde-mahaiaietako kideak hautatzeko. Hauteskunde-atal bakoitzean errolaturikoak sartzen dira zozketa horretan, bi baldintza hauek betez gero: hirurogeita bost urtetik beherakoa izatea eta irakurtzen eta idazten jakitea.

Hauteskunde-mahaia bakoitzeko kide hauek hautatzen dira:

- Mahaiburua eta mahaiburuaren bi ordezkokoak (lehen ordezkokoak eta bigarren ordezkokoak).
- Bi mahaikide eta bina ordezkokoak (mahaikide bakoitzaren lehen ordezkokoak eta bigarren ordezkokoak).

Hauteskunde-mahaiko burua hautatzeko zozketan sartzen direnek Batxilergo titulua eduki behar dute, edo Bigarren Mailako Lanbide Heziketarena, edo, subsidiarioki, Eskola Gradua edo titulu baliokidea.

Interesdunei jakinarazi egiten zaie mahaiburu edo mahaikide izendatu dituztela. Jakinarazpenarekin batera, Hauteskunde Mahaiaietako Kideen Eskuliburu hau ematen zaie. Barne Ministerioak prestatu du eta Hauteskunde Batzorde Zentralak gainbegiratu, eta Ministroen Kontseiluaren erabaki baten bidez onetsita dago.

Hauteskunde-mahaiaietako kide izendatuek (bai titularrak bai ordezkokoak) zazpi eguneko epea dute, jakinarazpenetik hasita, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari kargua ezin onartu dutela adierazteko, agiri bidez frogatutako arrazoi justifikatuak tarteko direnean.

Interesdunak alegazioak aurkezten dituenetik hasita, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak bost eguneko epean ebazti behar du, eta ebazpena behin betikoa izango da, hau da, ezin izango zaio errekurtsorik egin.

Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak, bidezkotzat jotzen badu titularrak alegatutako arrazoiak, ordezkapenaren beharra jakinaraziko dio lehen ordezkoiari.

Indarrean dauden arauak diotenez, eskualdeko hauteskunde-batzordeek bakarrik dute eskumena alegazio horiek baloratzeko, Hauteskunde Administrazioako organoak diren aldetik. Estatuko, autonomia erkidegoetako edo tokiko administrazio publikoek ezin dute inola ere esku hartu balorazio horretan.

Zein eskubide eta betebeharrak dituzte hauteskunde mahaietako kideek?

Hauteskunde-mahai bakoitzean hiru kide daude: mahaiburua eta bi mahaikide.

Horietariko bakoitzak bi ordezkoko ditu. Ordezkoek ere hauteslekura agertu behar dute, baina, titularrak etorri gero, alde egin dezakete.

Kargu horiek nahitaezkoak dira eta, Hauteskunde Araubide Orokorren buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 143. artikuluan arabera, hauteskunde-mahaietako kide izendatutako herritarrak hauteskunde egunean euren eginbeharra betetzera ez agertzea hauteskunde delitua da. Hain zuzen ere, bere eginkizunak betetzera agertzen ez den mahaiburua, mahaikide edo ordezkari 14 eta 30 egun bitartean askatasunaz gabetzeko zigorra eta bi eta hamar hilabete bitarteko isuna ezarri ahal zaizkio.

Hauteskunde-mahaietan aritzeagatik, kideek eskubide hauek dituzte:

- 53,34 €-ko dieta.
- Inoren konturako langileek eta funtzionarioek, ordaindutako baimena bozketaren egunerako, laneguna bada; eta hauteskunde-egunaren ondoko lanegunean, lanaldia bost ordu murriztea.
- Gizarte Segurantzako Sistemaren babesa, hauteskundeetan parte hartzeagatik etor litezkeen gertakizun eta egoerarako.

Zergatik irakurri behar da jarraibideen eskuliburu hau?

Hauteskunde-mahai bateko kide izendatu zaituzte. Izendapen horrek ekarri dizkizun eginkizunak behar bezala bete ahal ditzazun, eskuliburu hau egin da, jarraibideen eskuliburu moduan, eta hemen aurkituko dituzu orientazioa eta behar duzun informazioa, hauteskunde egunean hauteskunde-mahaiako kide gisa dagozkizun eginkizunak ondo betetzeko.

Irakur ezazu arretaz eta, ahal dela, hauteskunde-eguna baino nahikoa denbora lehenago. Horrela prestatu egongo zara herritar arduratsu gisa dagozkizun eginkizunak betetzeko.



HAUTESKUNDE MAHAIKO KIDEEEN EGITEKOAK HAUTESKUNDE EGUNEAN -zerrenda kronologikoa-

08:00etan

1. Hauteslekuan bildu
2. Hautestontziak, kabinak, gutun-azalak eta boto orriak ondo daudela egiaztatu
3. Agiriak eta inprimakiak ondo daudela egiaztatu
4. Hauteslekua ondo dagoela egiaztatu
5. Artekariak aurkeztutako izendapen agiriak jaso, taloiekin erkatu eta artekariak kargua eman



1. HAUTESLEKUAN BILDU

Bozketa-egunean (2007ko maiatzaren 27a, igandea), goizeko 08:00etan, hauteslekuan egon beharko dira mahaiburua, mahaikideak eta ordezkokoak.

Gerta daiteke mahaiburu zein mahaikide titularrak ez aurkeztea. Halakorik gertatzen bada, ordezkoei hartu behar dute haien lekua.

Mahaiburua agertu ezean honako hauek jarriko dira haren lekuan, hemen ageri diren hurrenkeran:

- Mahaiburuaren lehen ordezkoa.
- Hura ere ez badago, bigarren ordezkoa.
- Bietako inor ez badago, lehen mahaikideak jardungo du mahaiburu.
- Hura ere ez badago, bigarren mahaikideak jardungo du mahaiburu.

Mahaikideak ez badira hauteslekuan aurkeztu, edo mahaiburua ordezkatu behar badute:

- Haien lekuan haien ordezkokoak jarriko dira.

Esandako guztia eginda ere, ezin bada mahaia osatu mahaiburu bat eta bi mahaikide bildu ez direlako:

1. Agertu diren mahaiko kideek gertatutakoa **telefonoz edo telegrafoz** jakinarazi behar diote Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, eta gainera, gertatutakoa azaltzeko adierazpena idatzi behar dute eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari bidali behar diote posta ziurtatuaren bidez.

Bertaraturiko kideek gertakizunaren berri ematen ez badiote batzordeari, gobernu-agintariak jakinaraziko diote.

2. Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak mahaia zeinek osatuko duten erabakiko du. Batzordeak bere esku izango du behar beste pertsona hauteslekuan daudenen artetik aukeratzea.

Udaletako idazkariak Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen ordezkariak dira eta hauteskundeetan hark ematen dizkien eginkizunak bete ditzakete

Esandako moduan jardun arren, ezin bada mahaia 10:00ak aurretik osatu, bertan dauden kideek edo gobernu-agintariak Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari eman beharko diote horren berri, eta Batzordeak bi egun igaro baino lehen beste bozketa baterako deia egingo du.

Deia hauteslekuko atean ipiniko da, eta Hauteskunde Batzordeak beste kide batzuk izendatuko ditu.



2. HAUTESTONTZIAK, KABINAK, GUTUN-AZALAK ETA BOTO ORRIAK ONDO DAUDELA EGIAZTATU

Inoiz horrelako elementuren bat falta bada, mahaiburuak berehala jakinarazi behar dio Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, falta dena bidal dezan.

Mahaiburu batekin eta bi mahaikiderekin mahaia osatu ondoren, jarraian zehaztutako hauteskunde-material guztiak mahaian daudela egiaztatu beharko da:

1. EGIN BEHARREKO HAUTESKUNDE BAKOITZEKO HAUTESTONTZI BAT:

- Hautestontzi bat Zinegotzitarako edo Kontzeju Irekirako Udal Hauteskundeak egiteko.
- Hautestontzi bat Nafarroako Kontzejutarako Hauteskundeak egiteko.
- Hautestontzi bat Nafarroako Parlamenturako Hauteskundeak egiteko.

*Akats edo nahasterik ez sortzeko, hautestontziak **garbi seinalatu edo identifikatu behar dira.***

Hautestontzia identifikatzeko (zein hauteskundetarako erabiliko den adierazteko), **bozketarako gutun-azal** bat itsatsiko zaio aurrealdean eta beste bat atzealdean. Hala, Udal Hauteskundeetako gutun-azalak jarriko zaizkio Udal Hauteskundeetarako hautestontziari; Nafarroako Parlamentuko Hauteskundeetako gutun-azalak hauteskunde horiei dagokienez hautestontziari, eta Nafarroako Kontzejuetako Hauteskundeetako gutun-azalak beraien hautestontziari, non ez duen Nafarroako Foru Komunitateak bestelako identifikazio moduren bat erabakitzen.

*Hautestontziak **itxita eta zigilaturik** egon behar dira, inork ezer aldatuko ez duen berme gisa.*

*Horregatik, zigilua **hautsi edo hondatuz** gero, mahaiburuak ahal duen moduan ziurtatuko du itxiera, baldin eta ezin badiote garaz ekarri beste hautestontzi bat Eskualdeko Hauteskunde Batzordetik.*

2. BOZKATZEKO KABINA BAT

Kabina hori bozkatzeko den gela berean egon beharko da, gelako sarreraren eta hauteskunde-mahaiairentzako tartean, hain zuzen.

3. GUTUN-AZALAK ETA BOTO ORRIAK

Egun osoan zehar eta bozketak dirauen artean, hauteskundera aurkezten diren hautagai-zerrenda (alderdi politikoak, koalizioak etab.) guztietako gutun-azal eta boto-orri nahikoak egongo dira, hautesleak nahia-go duena hautatu ahal izan dezan.

*Boto-orriak kabinako **apaletan jarriko dira**. Behar beste apal ez badago edo horietan boto-orri guztiak sartzen ez badira, **mahai lagungarri** bat jar daiteke kabinaren ondoan, eta mahai horren gainean hautagai-zerrenda guztietako boto-orriak.*

Hona hemen hauteskunde bakoitzeko **boto-orri eta gutun-azalen kolorea**:

1. Udal Hauteskundeak: zuria.
2. Nafarroako Kontzejuetarako Hauteskundeak: urdin argia.
3. Nafarroako Parlamenturako Hauteskundeak: sepia, non ez duen Nafarroako Foru Komunitateak beste koloreren bat hautatzen.



3. AGIRIAK ETA INPRIMAKIAK ONDO DAUDELA EGIAZTATU

Inoiz horrelako elementuren bat falta bada, mahaiburuak berehala jakinarazi behar dio Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, hautesleku hornitu dezan.

Dagokion lana betetzeko, **mahaiaik agiri eta inprimaki hauek izan beharko ditu**:

1. MAHAIARI DAGOZKION HAUTESLE ESPAINIARRREN ERROLDAKO ZERRENDAREN BI ALE ZIURTATU

Bizilekua Espainian duten espainiarrak ez ezik, gerta daiteke beste herritar batzuk ere joatea hauteskunde-mahaian botoa ematera:

- **Gerta daiteke Europar Batasuneko herrialdeetako eta Norvegiako herritarrek joatea** (horiek bozkatzeko eskubidea dute Udal Hauteskundeetan eta Nafarroako Kontzejuetarako Hauteskundeetan).

Horregatik, mahaiaik agiri hauek eduki behar ditu:

- Espainiako hautesle-errolako zerrendaren bi ale ziurtatu, eta gainera
- Europar Batasuneko herrialdeetako eta Norvegiako hautesle atzerritarren errolako zerrendaren bi ale ziurtatu.

- **Gerta daiteke mahaia izendatuta egotea atzerrian bizi diren hautesle espainiarrek (CERA) posta bidez bidalitako botoak jasotzeko.**

Hala denean, mahaiaik agiri hauek eduki behar ditu:

- Espainiako hautesle-errolako zerrendaren bi ale ziurtatu, eta gainera
- Bizilekua atzerrian duten hautesle espainiarren errolako zerrendaren bi ale ziurtatu.

- **Gerta daiteke Europar Batasuneko herrialdeetako eta Norvegiako herritarrek bozkatzerako joatea eta, gainera, mahaia izendatuta egotea atzerrian bizi diren hautesle espainiarren posta bidezko botoak jasotzeko.**

Hala denean, mahaiaik agiri hauek eduki behar ditu:

- *Espainiako hautesle-errodako zerrendaren bi ale ziurtatu, eta gainera*
- *Europar Batasuneko herrialdeetako eta Norvegiako hautesle atzerritarren errodako zerrendaren bi ale ziurtatu, eta*
- *Bizilekua atzerrian duten hautesle espainiarren errodako zerrendaren bi ale ziurtatu.*

Hautesle-zerrenda bakoitzaren ale bat gelako sarreran jarriko da, hautesleek ikusteko aukera izan dezaten. Hautesle-zerrenda bakoitzaren beste ale bat mahaikoen eskueran egongo da, dena delako boto-emailea errodan ageri den ala ez begiratu ahal dezaten.

2. AKTEN EREDU OFIZIALAK

Ondorengo akten eredu-inprimakiak egon beharko dira:

1. Mahaiaien eraketa-akta

Hauteskunde-mahaia bakarra da, nahiz eta hauteskunde bat baino gehiago egin.

Horregatik, Mahaia eratu dela egiaztatzen duen **agiria** (Mahaiaien eraketa-akta) **bakarra** da, bat bera hauteskunde guztietarako.

Eskuliburu honen 14 orrialdean bi akten adibideak eta horiek betetzeko jarraibideak daude.

2. Boto-zenbaketaren aktak

Egingo den hauteskunde bakoitzeko, akta bat:

- Boto-zenbaketaren akta bat egongo da Zinegotzitarako edo Kontzeju Irekirako Hauteskundeetarako.
- Boto-zenbaketaren akta bat egongo da Nafarroako Kontzejuetarako Hauteskundeetarako.
- Boto-zenbaketaren akta berezi bat egongo da Nafarroako Parlamenturako Hauteskundeetarako.

Eskuliburu honen 24, 25, 26 orrialdean akten adibideak eta horiek betetzeko jarraibideak daude.

3. Bilkura-aktak

Boto-zenbaketaren akten antzera, **hauteskunde bakoitzeko, bilkura-akta bat egongo da:**

- Bilkura-akta bat egongo da Zinegotzitarako edo Kontzeju Irekirako Hauteskundeetarako.
- Bilkura-akta bat egongo da Nafarroako Kontzejuetarako Hauteskundeetarako.
- Bilkura-akta bat egongo da Nafarroako Parlamenturako Hauteskundeetarako.

Eskuliburu honen 26, 27 orrialdean akten adibideak eta horiek betetzeko jarraibideak daude.

3. BOTO EMAILEEN ZERRENDA ZENBAKIDUNA, botoa eman duten hautesleen izenak jasotzeko.

Mahaiaik **boto-emaileen zerrenda zenbakidun bat** izango du. Inprimaki horretan zutabe bat agertzen da egingo den hauteskunde bakoitzeko. Zutabe horietan adierazi beharko da boto-emaileak zein hauteskundeetarako eman duen botoa.

Zerrenda hori kopia-paperean eginda dago. Horrela, hauteskunde bakoitzeko ale bat aterako da (bozketari amaitu eta gero, hauteskundeetako dokumentazioaren gutun-azalak prestatzerakoan), hauteskunde horri dagokion kolore berekoa.



ELECCIONES MAYO 2007 / 2007KO MALATZeko HAUTESKUNDEAK
 JUNTA ELECTORAL DE ZONA DE
 ESKUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

Asiento / Gai
 CREDENCIAL
 NOMBRAMIENTO INTERVENTORA
 ARTEKARIEN IZENDAPEN AGIRIA
 Fecha de la Elección / Hautakuntzen eguna:

DATOS DE LA PERSONA PROPUESTA
PROPOSATUTURIKO PERTSONAREN DATUAK

1.º Apellido / I. abizena 2.º Apellido / 2. abizena

Nombre / Izena N.º D.N.I. / N.I.V.ª:

Profesión / Lanbidea Edad / Aiaia
 Municipio / Herriak N.º de la Calle / Plaz. / Salburua

Domicilio / Hiribidea N.º de la Calle / Plaz. / Salburua

Municipio / Udalerria C.P. / P.C. Provincia / Probintzia:

Inscrito en el Censo en la circunscripción de Distrito Concel. / Errotilla-kontrata Sección / Eskualde Mesa / Mahai
 Hautakuntza / Hautakuntza / Hautakuntza / Hautakuntza

DATOS DEL/DE LA REPRESENTANTE
ORDEZKARIEN DATUAK

1.º Apellido / 1. abizena 2.º Apellido / 2. abizena

Nombre / Izena N.º D.N.I. / N.I.V.ª:

Profesión / Lanbidea Edad / Aiaia
 Municipio / Herriak N.º de la Calle / Plaz. / Salburua

Domicilio / Hiribidea N.º de la Calle / Plaz. / Salburua

Municipio / Udalerria C.P. / P.C. Provincia / Probintzia:

Formación Política / Partidu politikoa:

Para las elecciones: (1) / Hautakuntza / Hautakuntza: (1)

(1) Irizten gertatzen dena ez da hiru aldi iraupena / Irizten gertatzen dena ez da hiru aldi iraupena
 De acuerdo con el artículo 78.1 de la vigente Ley Orgánica del Régimen Electoral General y a los efectos de lo indicado en ella, nombro Interventora de la Mesa electoral n.º de la Sección del Distrito del Municipio a la persona arriba indicada.
 Induzten gertatzen dena ez da hiru aldi iraupena / Induzten gertatzen dena ez da hiru aldi iraupena
 De acuerdo con el artículo 78.1 de la vigente Ley Orgánica del Régimen Electoral General y a los efectos de lo indicado en ella, nombro Interventora de la Mesa electoral n.º de la Sección del Distrito del Municipio a la persona arriba indicada.
 Irizten gertatzen dena ez da hiru aldi iraupena / Irizten gertatzen dena ez da hiru aldi iraupena
 De acuerdo con el artículo 78.1 de la vigente Ley Orgánica del Régimen Electoral General y a los efectos de lo indicado en ella, nombro Interventora de la Mesa electoral n.º de la Sección del Distrito del Municipio a la persona arriba indicada.

..... de de de
 ELLA REPRESENTANTE,
 ORDEZKARIA,

Sr/a D/D/a /
 Sr/a D/D/a /
 Sr/a D/D/a /

IZENDAPEN-AGIRIAREN EREDUA

ELECCIONES MAYO 2007 / 2007KO MALATZeko HAUTESKUNDEAK
 JUNTA ELECTORAL DE ZONA DE
 ESKUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

Asiento / Gai
 CREDENCIAL
 NOMBRAMIENTO INTERVENTORA
 ARTEKARIEN IZENDAPEN AGIRIA
 Fecha de la Elección / Hautakuntzen eguna:

DATOS DE LA PERSONA PROPUESTA
PROPOSATUTURIKO PERTSONAREN DATUAK

1.º Apellido / 1. abizena 2.º Apellido / 2. abizena

Nombre / Izena N.º D.N.I. / N.I.V.ª:

Profesión / Lanbidea Edad / Aiaia
 Municipio / Herriak N.º de la Calle / Plaz. / Salburua

Domicilio / Hiribidea N.º de la Calle / Plaz. / Salburua

Municipio / Udalerria C.P. / P.C. Provincia / Probintzia:

Inscrito en el Censo en la circunscripción de Distrito Concel. / Errotilla-kontrata Sección / Eskualde Mesa / Mahai
 Hautakuntza / Hautakuntza / Hautakuntza / Hautakuntza

DATOS DEL/DE LA REPRESENTANTE
ORDEZKARIEN DATUAK

1.º Apellido / 1. abizena 2.º Apellido / 2. abizena

Nombre / Izena N.º D.N.I. / N.I.V.ª:

Profesión / Lanbidea Edad / Aiaia
 Municipio / Herriak N.º de la Calle / Plaz. / Salburua

Domicilio / Hiribidea N.º de la Calle / Plaz. / Salburua

Municipio / Udalerria C.P. / P.C. Provincia / Probintzia:

Formación Política / Partidu politikoa:

Para las elecciones: (1) / Hautakuntza / Hautakuntza: (1)

(1) Irizten gertatzen dena ez da hiru aldi iraupena / Irizten gertatzen dena ez da hiru aldi iraupena
 De acuerdo con el artículo 78.1 de la vigente Ley Orgánica del Régimen Electoral General y a los efectos de lo indicado en ella, nombro Interventora de la Mesa electoral n.º de la Sección del Distrito del Municipio a la persona arriba indicada.
 Induzten gertatzen dena ez da hiru aldi iraupena / Induzten gertatzen dena ez da hiru aldi iraupena
 De acuerdo con el artículo 78.1 de la vigente Ley Orgánica del Régimen Electoral General y a los efectos de lo indicado en ella, nombro Interventora de la Mesa electoral n.º de la Sección del Distrito del Municipio a la persona arriba indicada.
 Irizten gertatzen dena ez da hiru aldi iraupena / Irizten gertatzen dena ez da hiru aldi iraupena
 De acuerdo con el artículo 78.1 de la vigente Ley Orgánica del Régimen Electoral General y a los efectos de lo indicado en ella, nombro Interventora de la Mesa electoral n.º de la Sección del Distrito del Municipio a la persona arriba indicada.

..... de de de
 ELLA REPRESENTANTE,
 ORDEZKARIA,

Sr/a D/D/a /
 Sr/a D/D/a /
 Sr/a D/D/a /

IZENDAPEN-AGIRIAREN TALOIAREN EREDUA

Izendapen-agiriak: hautagai-zerrendetako ordezkariak artekariak izendatzeko erabiltzen dituzten agiriak dira.

Taloiak izendapen horren kopia dira.

6. DENA DELAKO MAHAIKO HAUTESLEEN ZERRENDAN AGERTU BAINA BESTE MAHAI BATEAN ARTEKARI DIHARDUTENEN IZENDAPEN AGIRIEN TALOIAK (hala badagokio).

Artekaria mahaiari dagokion hauteskunde-barrutian badago inskribaturik, kreditatuta dagoen mahaiari eman behar du botoa.

Ez badago hor inskribaturik, postaz gauzatuko du bere eskubidea; beraz, ezin izango du botoa eman inskribaturik dagoen hautesle-errodako mahaiari.

7. HIRU GUTUN-AZAL ZENBAKIDUN (1, 2 eta 3 zenbakiekin) eta horiek **EMAN IZANAREN AGIRIAK**. Egin beharreko hauteskunde bakoitzeko hiru gutun-azal egongo dira, horiek eman izanaren agiriarekin batera.

Hutsen bat sumatuz gero, mahaiburuak berehala eman beharko dio horren berri, telefonoz, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, falta dena bidal dezan.



4. HAUTESLEKUA ONDO DAGOELA EGIAZTATU

Hauteslekua bozkatzeko baldintza egokietan egon beharko da.

Hauteskunde-mahaiko kide guztientzako beste aulki eta mahai egon beharko dira, hala nola argi egokia, bulegoko materiala eta seinaleak.

Atalak eta mahaiak non dauden adierazteko ere, seinale egokiak egongo dira.

Akatsen bat sumatuz gero, berehala eman beharko zaio horren berri, telefonoz, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, konpon dezan.



5. HAUTAGAI ZERRENDETAKO ARTEKARIEK AURKEZTUTAKO IZENDAPEN AGIRIAK JASO, TALOIEKIN ERKATU ETA ARTEKARIEI KARGUA EMAN

08:00ak eta 08:30ak bitartean, mahaiak izendapen-agiriak jasoko ditu aurkezten diren hautagai-zerrendetako artekariaren eskuetatik.

Izendapen-agiriak: *hautagai-zerrendetako ordezkariak artekariak izendatzeko erabiltzen dituzten agiriak dira.*

Izendapen-agiriak aurkeztu ahala, zenbaki bana emango zaie, zein hurrenkeratan aurkeztu diren jasorik uzteko.

Mahaiburua erkatu egingo ditu izendapen-agiriak taloiekin (izendapenaren kopiak), eta begiratu ea bat datozen.

Taloiak (izendapenaren kopiak) mahaiari ematen zaizkion agirien artean egon behar dira.

Izendapen-agiriak eta taloiak berdinak baldin badira, **kargua emango zaie** artekariari (hautagai-zerrenda bakoitzeko bi artekari):

- Adieraziko zaio artekariari mahaiak onarpena eman diola.
- Artekariaren izena mahaia eratzeko aktan jasoko da, dagokion atalean (mahaiak onarturiko artekariaren zerrendan).
- Azkenik, izendapen-agiriak itzuli egingo zaizkie artekariari, non eta ez diren taloiak jaso.

*Hautagai-zerrenda bakoitzeko, **gehienez bi artekarik** jardun ahalko dute mahaiarekin.*

*Hautagai-zerrenda batetik bi artekari baino **gehiago agertzen badira**, izendapen-agiria lehenengo aurkeztu duten biei emango zaie kargua.*

Izendapen-agiri bat nahikoa da egun berean egiten diren hauteskunde guztietan artekari jardun ahal izateko, artekariak ordezkatzeko duen hautagai-zerrendak hauteskunde horietan parte hartuz gero.

AZALDU DAITEZKEEN ARAZOAK:

- **Mahaiak taloirik jaso ez izana.**
- **Izendapen-agirien egiazkotasunaz zalantza egitea.**
- **Artekari moduan aurkezten diren pertsonen nortasunaz zalantza egitea**

Horrelakoetan mahaiburuak hauxe egin behar du:

- 1. Artekarietara kargua eman, hala eskatzen badute.**
- 2. Gorabehera horien berri jasotzea mahaia eratzeko aktan, gero argitu daitezten.**

HALABER, gerta daiteke:

- Talairik jaso ez izana; horrelakoetan, izendapen-agiriak hauteskunde-espeditentari batuko zaizkio eta 1 zenbakiko gutun-azalean sartuko dira, **hauteskunde-egunaren amaieran**.
- Artekariak 08:30ak jota agertzea, mahaia eratzeko akta eginda dagoenean. Horrelakoetan ez zaie kargua emango, baina mahaian bozkatu ahalko dute.

Hori guztia egin ondoren, **izendapen-agiriak artekarietara itzuliko zaizkie**.

Mahaiaren dokumentazioarekin batera jaso diren **taloiak hauteskunde-espeditentari erantsi** behar zaizkio eta 1 zenbakiko gutun-azalean sartu.

AHALORDEDUNAK

- Hautagai-zerrendetako ordezkariak ahalordea eman ahal diote edonori, adin nagusikoa izan eta bere eskubide zibil eta politikoak erabiltzeko gaitasun osoa badu, hautagai-zerrendaren ordezkari jardun dezan hauteskundeetako egintza eta eragiketetan. Pertsona horri ahalordeduna esaten zaio.
- Ahalordedunak hautesleku guztietara sar daitezke nahi dutenean, bozketaren eta boto-zenbaketaren nondik norakoa azter dezakete edozein mahaitan, erreklamazio eta protestak egin ditzakete eta ziurtagiriak eska ditzakete.
- Ahalordedunek, euren hautagai-zerrendetako artekarietara ezean, mahaian artekari jardun dezakete eta mahaiaren eztabaidetan parte hartu, hizpidearekin baina boto eskubiderik gabe.
- Ahalordedunek euren burua identifikatu behar dute, euren ahalorde-agiria eta Nortasun Agiri Nazionala mahaiko kideei erakutsiz.
- Ahalordedunek ezin dute mahaian bozkatu, mahaiko erroldan egon ezean.

ARTEKARIAK ETA AHALORDEDUNAK

Artekarietara eta ahalordedunek ordezkatzeko duten erakunde politikoaren ikurrak edo eranskailuak eraman ditzakete, baina hautagai-zerrenda horretako artekari edo ahalordedun gisa euren burua identifikatzeko soilik, eta hauteskunde-propagandarik egin gabe.

3. AKTAREN KOPIAK BANATU

Mahaiburuak eraketa-aktaren kopia emango die hautagai-zerrendetako ordezkariari, ahalordedunei edo artekariari, eskatzen badiote.

Hautagai-zerrenda bakoitzeko kopia bakar bat emango da.

Mahaiburuak eraketa-aktaren kopia ukatzen badio hura eskatzeko eskubidea duenari, edo berandu ematen badio, protesta egin ahalko da. Protesta-agiriaren bi ale egingo dira eta erreklamatzailerik sinatu egingo dituzte. Ale bat hauteskunde-espedienteari batuko zaio, eta erreklamatzailerik beste alea bidaliko diote boto-zenbaketa orokorra egiteko eskumena duen hauteskunde-batzordeari.

09:00etatik 20:00etara

BOZKETA

7. Bozketaren hasiera

8. Bozketaren nondik norakoa



7. BOZKETAREN HASIERA

Mahaiburuak bozketaren hasiera iragarriko du 09:00etan, **“hasi da bozketa”** esanez.

- Hauteskunde-egun osoan mahaian egon behar dira **mahaiko bi kide, gutxienez.**
- Hauteskunde-egun osoan mahaiburuak **hauteslekuko ordena** zaindu behar du, eskuliburu honen amaieran azaltzen den moduan.

HURRENGO KASUETAN BOZKETA **ETEN EGIN DAITEKE EDO BERTAN BEHERA UTZ DAITEKE:**

- **Eten:** Mahaiburuak bozketa eten egin behar du hautagai-zerrendaren bateko boto-orriak amaitu eta hautagai-zerrenda horretako artekari edo ahalordedunek ezin badiote boto-orri gehiago eman. Gehienez ere ordubeteko etenaldia egingo da, eta gero bozketa beste horrenbeste luzatuko da.
Mahaiburuak gertatutakoa jakinaraziko dio, telefonoz, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari, berehala boto-orri gehiago bidal ditzan.
- **Bertan behera utzi:** Bozketa bertan behera utzi behar da etenaldiak ordubete baino gehiago irauten badu, edo zerbaitek bozketa eragozten badu.
Bozketa bertan behera uztea erabaki aurretik, mahaiburuak mahaiko kide guztien iritzia entzun behar ditu, eta, ahal badu, telefonoz kontsultatu behar dio Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari.

Bozketa bertan behera uzteko erabakia idazki arrazoitu batean jasoko da. Mahaiburuak, erabaki hori hartu ondoren, ordura arte hautestontzietan sartu diren boto-orri guztiak suntsitzeko aginduko du, eta berehala idazkiaren kopia bidaliko dio Probintziako Hauteskunde Batzordeari, eskuan edo posta ziurtatuaren bidez.

Mahai batean bozketa bertan behera utziz gero, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak mahai horretarako hauteskunde-deia egingo du bi egun igaro aurretik.



8. BOZKETAREN NONDIK NORAKOA

Botoa emateko **urrats hauek** egin behar dira:

1º HAUTESLEAK BANAN-BANAN HURBILDUKO DIRA MAHAIRA bozketa-kabinetatik igaro ondoren, hala nahi badute.

2º HAUTESLEAK BERE IZEN-ABIZENAK ESANGO DIZKIO mahaiburuari

3º HAUTESLEAREN NORTASUNA EGIAZTATUKO DA: Mahaikideek eta artekariak hauteslearen nortasu-na egiaztatuko dute. Horretarako, hautesleak agiri hauetako bat aurkeztu behar du:

- Nortasun Agiri Nazionala (NAN).

Tramitatzen ari den NANaren frogagiriak ez du balio, hauteslearen argazkirik ez dagoelako.

- Pasaportea (argazkiarekin).

- Gidabaimena (argazkiarekin).

- Egoiliar-txartela, txartel hori daukaten Europar Batasuneko herritarren kasuan.

- Atzeritarren nortasun-txartela, Norvegiako herritarren kasuan

AGIRI HORIEK IRAUNGITA EGON ARREN ONARTU EGINGO DIRA, BAINA JATORRIZKOAK IZAN BEHAR DIRA. EZ DA FOTOKOPIARIK ONARTUKO.

AGIRI HORIETAKOREN BAT ERAKUTSI ARREN HAUTESLEAREN NORTASUNARI BURUZKO ZALANTZARIK BADAGO, MAHAIKOEK GEHIENGOZ ERABAKIKO DUTE, KONTUAN IZANIK EKARRI DIREN AGIRIAK ETA AURREAN DAUDEN HAUTESLEEK EMAN DEZAKETEN LEKUKOTASUNA.

INGURUABAR HORIEK BILKURA-AKTA EGOKIAN JASO BEHAR DIRA.

4º EGIAZTATU EGINGO DA HAUTESLEA BADAGOELA HAUTESLEEN ERROLDAKO ZERRENDAN:

Mahaikideek eta artekariak egiaztatu egin behar dute hauteslea erroldako zerrendan ageri dela.

Mahaian botoa eman dezaketen hautesleak hautesle-erroldako zerrendan ageri dira.

Zerrenda hori mahaia ematen zaion dokumentazioaren barruan egon behar da.

Erroldako zerrendan egon ezik, hautesleak agiri hauek aurkeztu beharko ditu mahaian bozkatu ahal izateko:

A) Hautesleari mahaiko erroldan inskribatuta egoteko eskubidea onartzen dion **epaia**.

B) **Erroldako ziurtagiri berezia**, Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzak emana, hautesleak boto-eskubidea erabili ahal dezan.

Errola-txartel horiek:

- EZ DUTE BALIO HAUTESLEAK IDENTIFIKATZEKO.

- EZ DUTE BALIO HAUTESLEEK BOZKATU AHAL IZATEKO.

Erroldako ziurtagiri bereziak, bestalde, EZ DIRA NAHASTU BEHAR ERROLDAREN INSKRIPZIO ZIURTAGIARIAREKIN. Azken hori posta bidez botoa emateko dokumentazioaren barruan dago.

OFICINA DEL CENSO ELECTORAL
Teléfono: / Teléfono: 106 101 906
En las listas electorales que se utilizarán en las próximas Elecciones figura Vot. Inscribitos en: Datos de Haudesleuekuntzearen emateko datuak zehazten dituzten honako honetan zuzte zehazten dituzte.

Municipio: Urdinola
Distrito: Barakaldo
Local electoral: Haudesleuekuntzearen
Sección: Barakaldo
Mesa: 101

Datos personales de su inscripción:
Zure inskripzioaren datu pertsonalak:
Fecha de nacimiento: 1975-03-15
D.N.I.: 123456789

Delegación Provincial: Barakaldo

OFICINA DEL CENSO ELECTORAL
Elecciones mayo 2007
Tarjeta censal
2007ko maiatzeko hautesleuekuntzearen

El cumplimiento del artículo 39.5 de la Ley Orgánica 5/1985 del Régimen Electoral General, en la presente esta tarjeta censal con los datos actualizados de su inscripción en el censo electoral vigente.
Haudesleuekuntzearen emateko datuak zehazten dituzten honako honetan zuzte zehazten dituzte.
Este tarjeta tiene carácter puramente informativo.
Honako informazio horien arabarri datuak baliatu da.

Se permite por favor, indicar con una X la causa de la observación:
Posible justificación: Afirmar: Observaciones sugeridas:

Rehabilitado	<input type="checkbox"/>	1
2º de turno censal	<input type="checkbox"/>	2
Desconocido	<input type="checkbox"/>	3
Eligible	<input type="checkbox"/>	4
Se mantuvo sin dejar estas condiciones	<input type="checkbox"/>	5
Dirección inactualizada	<input type="checkbox"/>	6
Faltado	<input type="checkbox"/>	7
Habituado	<input type="checkbox"/>	8
Otras causas	<input type="checkbox"/>	9

ERROLDA-TXARTELA

HAU ERE KONTUAN HARTU BEHAR DA:

Mahaiko erroldan sartuta egon arren, EZIN DUTE MAHAIAN PERTSONALKI BOTOA EMAN:

- Botoa posta bidez emateko eskatu dutenek (erroldako zerrendan haien izenen ondoan "C" letra agertuko da, edo "posta bidezko botoa eskatu duten mahaiko hautesleen zerrendan" egongo dira, erroldako zerrendaren eranskinetan).

Mahaiko erroldan sartuta ez daudelako, EZIN DUTE MAHAIAN BOTOA EMAN:

- Mahaian kreditatuta baina beste barruti bateko erroldan inskribatuta dauden artekariak (hauteskunde-dokumentazioaren barruan haien izendapen-agiriaren kopia egongo da). Artekari horiek posta bidez eman behar dute botoa aldez aurretik, erroldan inskribatuta dauden mahaian.

Mahaiko erroldan sartuta egon arren, EZIN DUTE MAHAIAN PERTSONALKI BOTOA EMAN:

- Beste barruti bateko mahai batean artekari jar-duteko kreditaturik dauden hautesleek (hauteskunde-dokumentazioaren barruan haien izendapen-agiriaren kopia egongo da). Artekari horiek posta bidez eman behar dute botoa aldez aurretik, erroldan inskribatuta dauden mahaian.

Mahaiko erroldan sartuta egon ez arren, MAHAIAN BOTOA EMAN DEZAKETE:

- Mahaian kreditaturiko artekariak, baldin eta mahai horri dagokion barruti berean inskribatuta badaude eta euren mahaian botoa posta bidez emateko eskubidea erabili ez badute.

OFICINA DEL CENSO ELECTORAL
ELECCIONES HAUTESKUNDEAK
DELEGACIÓN PROVINCIAL DE BARAKALDO

Nombre: GARCIA
IDENTIFICACION IDENTIFICAZIOA
D.N.I.: 123456789

MUNICIPIO: BARAKALDO
CALLE: CALLE DE LA PAZ

PROVINCIA: VISITACION

D. D. DELEGADO/A PROVINCIAL DE LA OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

CERTIFICACION:
Que esta elector/a cuyo nombre y demás circunstancias personales antedichas, se encuentra inscrita en el censo en el distrito y sección, que también se especifican.
Y para que conste, en cumplimiento de lo determinado en el artículo 73 de la Ley Orgánica 5/1985 del Régimen Electoral General, expido la presente certificación, a los efectos de que, en caso de no poder acudir al sufragio por correo.

ERROLDAREN INSKRIPZIO-ZIURTAGIARIAREN EREDUA

5º BOZKATZEKO GUTUN-AZALA EDO GUTUN-AZALAK JASOKO DA/DIRA

Botoa sekretua da.

Hautesleak mahaiburuari eskura eman behar dio/dizkio gutun-azala edo gutun-azalak, itxita.

Europar Batasuneko herrialdeetako eta Norvegiako herritarrek Udal Hauteskundeetan eta Nafarroako Kontzejuetarakoetan bozkatzan ahal dute, ez, ordea, Nafarroako Parlamenturako Hauteskundeetan.

Irakurtzen ez dakiten hautesleek, edo ezintasunen bat izateagatik boto-orria hautatzeko, gutun-azalean sartzeko edota mahaiburuari emateko gai ez direnek, laguntza eskatu ahal diote konfiantzako pertsona bati.

6º GUTUN-AZALA EDO GUTUN-AZALAK HAUTESTONTZI EGOKIAN SARTUKO DIRA

Jarraian, mahaiburuak hauxe egingo du:

- a) Une batez ere ez ditu gutun-azalak jendearen bistatik ezkutatu.
- b) Ahots ozenez, hauteslearen izena irakurri eta “botoa ematen du” esango du.
- c) Gutun-azal bakoitza dagokion hautestontzian sartuko du.

Gogoan izan, gutun-azala hautestontzian sartu aurretik hauteslearen nortasuna eta erroldako inskripzioa egiaztatu behar dira.

Mahaiburuak sartu behar du gutun-azala hautestontzian, ez hautesleak

7º HAUTESLEAREN IZENA IDATZIKO DA BOTO EMAILEEN ZERRENDA ZENBAKIDUNEAN

- a) Mahaikideek, eta nahi duten artekariak, hautesleen izen-abizenak idatziko dituzte boto-emaitzen zerrenda zenbakidunean, botoa eman duten hurrenkera berean.
- b) Gainera, hautesle-erroldako zerrendan duten zenbakia jarriko diete, edota erroldako ziurtagiri berezia ekarri dutela idatziko dute.

Hautesleak eskubidea du boto-emaitzen zerrenda zenbakidunean bere izen-abizenak ondo idatzi diren begiratzeko.

Hautesleek ez dute deialdiko hauteskunde guztietan bozkatu beharrik: zilegi dute nahi duten hauteskundeetan bakarrik bozkatea.

Hautesle batek deialdiko hauteskunderen batean botorik ematen ez badu, boto-emaitzen zerrenda zenbakidunean horren berri jaso behar da, abstenitu den hauteskunderari dagokion zutabea. Nolanahi ere, deialdiko hauteskunderen batean botorik ematen ez badu, ezin izango du gero etorri hauteskunde horretan botoa ematera.

BOZKETAREN AMAIERA ETA BOTOEN ZENBAKETA

- 9. Bozketaren amaiera (20:00).**
- 10. Mahaiok artekariak botoa eman**
- 11. Boto emaitzen zerrenda zenbakiduna sinatu**
- 12. Botoak zenbatu**
- 13. Bozketaren emaitza aditzera eman**
- 14. Boto zenbaketaren akta egin**
- 15. Bilkura akta egin**





9. BOZKETAREN AMAIERA (20:00)

20:00etan, MAHAIBURUAK AHOTS OZENEZ ESANGO DU BOZKETA AMAITU BEHAR DELA.

Egunean zehar hautagai-zerrendaren bateko boto-orriak falta izan direlako bozketa eten bada, etenda egon den beste denboraz luzatu behar da.

Bozketaren amaiera iragarri ondoren, **hauteslekuan edo hauteslekuko sarreran** oraindik botoa eman ez duen hautesleren bat geratzen bada, mahaiburuak botoa ematen utziko die eta ez dio beste inori utziko botoa ematen.

Jarraian, hauteslekuan geratzen den azken hautesleak botoa eman eta gero, **mahaiburuak hautestontzi egokietan sartuko ditu POSTA BIDEZ BIDALITAKO BOTO-ORRIAK.**

Kontuan hartu behar da nortzuk izan daitezkeen bidaltzaileak:

- *Hauteskunde-egunean bozkatu behar duten herritik kanpo egongo direlakoan **posta bidezko botoa eskatu duten pertsonak.***

Atzerrian bizi diren espainiarrek, mahaia haien botoak jasotzeko izendatuta badago. Kasu honetan, Udal Hauteskundeetako botoak baizik ez dira hartuko, zeren Nafarroako Parlamenturako Hauteskundeetan, boto hauek zuzenean baitoaz boto zenbaketaz arduratzen den Hauteskunde Batzordera.

Atzerrian bizi eta Udal Hauteskundeetan bozkatuko duten espainiarren botoari dagokionez, kontuan hartu behar da **mahaia jasoko dituen boto-orriak bestelakoak izango direla** (haien ereduak erantsi dira), bozketaren egunean hautesleek mahaia ekarriko dituzten boto-orrien eta Espainian bizi diren espainiarrek posta bidez bidaliko dituztenen aldean. **Atzerrian bizi den hautesleak boto-orrian idatzi behar du botoa nori eman nahi dion, alderdiaren, federazioaren, koalizioaren edo hautesle-taldearen izena zehaztuta; hori da batzuen eta besteen arteko aldea.**

<p>ELECCIONES LOCALES 2007 2007KO TOKI HAUTESKUNDEAK</p> <p>ALCALDE ALKATEA</p> <p>Municipio de</p> <p>Udalerria</p> <p>Doy mi voto para ALCALDE a: ALKATE izateko niri baima emanaki izan ematen dion:</p>	<p>ELECCIONES LOCALES 2007 2007KO TOKI HAUTESKUNDEAK</p> <p>CONCEJALES ZINEGOTZIAK</p> <p>Municipio de</p> <p>Udalerria</p> <div style="border: 1px solid black; width: 150px; height: 30px; margin: 10px auto;"></div>	<p>ELECCIONES LOCALES 2007 2007KO TOKI HAUTESKUNDEAK</p> <p>CONCEJALES ZINEGOTZIAK</p> <p>Municipio de</p> <p>Udalerria</p> <p>Doy mi voto a los siguientes candidatos: Niri botoa emateko hautagai izan ematen dion:</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
--	--	---

ATZERRIAN BIZI DIREN ESPAINIARRREN BOTO-ORRIEN EREDUAK

Horretarako, urrats hauek beteko dira:

1. Mahaiburuari bidalitako gutun-azalak banan-banan ireki. Barruan egon behar dira hauteslea eroldan inskribaturik dagoelako ziurtagiria, eta posta bidez bozkatzeko gutun-azala edo gutun-azalak.



Erroldako inskripzioaren ziurtagiria falta bada, gutun-azala suntsitu egin behar da barruko dokumentazio guztiarekin. Izan ere, boto hori ez da ez balioduna ez baliogabea ez zuria, ezin delako boto-emailea kontuan hartu.
Barruan boto-orria daukaten gutun-azalak ez dira ireki behar.

2. Hauteslea mahaiko erroldan inskribaturik dagoela egiaztatu.

*Atzerrian bizi diren hautesle espainiarrek **Udal Hauteskundeetan eta Nafarroako Parlamenturako Hauteskundeetan eman dezakete botoa.***

3. Hautestontzi egokian sartu bozkatzeko gutun-azala edo gutun-azalak.

4. Hauteslearen izena idatzi boto-emaileen zerrenda zenbakidunean.

Mahaikideek hauteslearen izena idatziko dute boto-emaileen zerrenda zenbakidunean.



10. MAHAIKOEK ETA ARTEKARIEK BOTOA EMAN

Ondoren, mahaikoez eta artekariek botoa eman ahalko dute. Mahaiburuak hautestontzi egokietan sartuko ditu gutun-azalak.

Artekariren bat mahaiko erroldan ageri ez bada, zein atal eta hauteskunde-mahai dagozkion jarri behar da boto-emaileen zerrenda zenbakidunean.



11. BOTO EMAILEEN ZERRENDA ZENBAKIDUNA SINATU

Hori guztia egin ondoren, mahaikideek eta artekariek boto-emaileen zerrenda zenbakiduna sinatuko dute.

Zerrendako leku hauetan sinatu behar da:

- orri bakoitzaren ertzean, eta
- idatzitako azken izenaren azpi-azpian.



12. BOTOAK ZENBATU

Bozketa amaiturik, berehala eta etenunerik gabe, botoak zenbatu egingo dira.

*Boto-zenbaketa jendaurreko ekitaldia da, eta ezin da gelditu harik eta egindako **hauteskunde guztietako boto guztiak** zenbatu arte.*

Mahaiburuak berehala kanporatuko ditu botoak zenbatzeko trabak edo nahasteak eragiten dituzten pertsonak.

BOTOAK ZENBATZEKO HURRENKERA

1.- LEHENIK, Udal Hauteskundeetako botoak zenbatuko dira.

2.- BIGARRENIK, Nafarroako Kontzejuetarako Hauteskundeetako botoak zenbatuko dira. Baldin eta hauteskunde mahai berean Kontzeju bat baino gehiagotako bozketa egiten bada, haien boto zenbaketa kontzejuen ordena alfabetikoaren arabera egingen da.

3.- HIRUGARRENIK, Nafarroako Parlamenturako Hauteskundeetako botoak zenbatuko dira.

Botoak hurrenkera honi jarraituz zenbatuko dira:

Udal Hauteskundeetako boto-orriak: Udalak eta Kontzeju Irekia.

Nafarroako Kontzejuetarako Hauteskundeetako boto-orriak.

Nafarroako Parlamenturako Hauteskundeetako boto-orriak.

HAUTESKUNDE BAKOITZEKO BOTOAK HONELA ZENBATU BEHAR DIRA:

1. Hautesontzia ireki ondoren, gutun-azalak banan-banan atera eta boto-orriak irakurriko dira.

Mahaiburuak banan-banan aterako ditu gutun-azalak hautesontzitik, ireki egingo ditu eta ozen irakurriko du bozkaturako hautagai-zerrendaren izena edo bozkaturako hautagaiaren izena edo hautagaien izenak.

Irekitako gutun-azalak gorde egin behar dira, berriz zenbatu ahal izateko.

Gutun-azalak eta boto-orriak aztertzean, hautagai-zerrenden aldeko boto baliodunetz gainera honelakoak ere aurki daitezke:

- boto zuriak, eta
- boto baliogabeak

Bi boto mota horiek bereiz zenbatu behar dira, bozketaren emaitza zehazteko.

BOTO ZURIAK dira

- Barruan boto-orriak ez duten gutun-azalak.
- Inongo hautagairik markatu ez den boto-orriak, **100-250 biztanle bitarteko udalerrietarako eta kontzeju irekietarako hauteskundeetan.**
- Inongo hautagairik markatu ez den boto-orriak, **Kontzejuetarako hauteskundeetan.**

BOTO BALIOGABEAK dira

- Eredu ofizialekoak ez diren gutun-azal edo boto-orrietan emandakoak (gogoan izan atzerrian bizi diren espainiarren boto-orriak desberdinak direla; horien ereduak eskuliburu honetan daude).
- Gutun-azalik gabeko boto-orriak.
- Barruan boto-orri bat baino gehiago dituzten gutun-azalak, salbu eta boto-orri guztiak hautagai-zerrenda berekoak direnean (orduan boto-orri horiek batera boto baliodun baten parekoak izango dira).
- Aldatuta dauden gutun-azaletan emandako botoak.
- Hautagaien izenak aldatu, gehitu, markatu, ezabatu edo ordenaz aldatu diren edo bestelako aldaketak egin zaizkien boto-orriak.
Azpimarra edo markaren bat egon arren, boto-orrian emandako botoa balioduna izango da, baldin eta marka hori inongo hautagairik baztertu, aldatu edo ezabatzeke asmorik gabe egin bada eta hautagaien hurrenkera aldarazten ez badu.
- Lau hautagai baino gehiago markatuta dituzten boto-orriak, 100 eta 250 biztanle bitarteko udalerrietan, **Udal Hauteskundeetan.**
Izen bat, bi edo hiru markatuta dituztenak, aldiz, baliodunak dira.
- Lau hautagai baino gehiago markatuta dituzten boto-orriak, 50 biztanle baino gehiago dituzten Kontzejuetarako Hauteskundeetan.

2. Boto-orria mahaikide, artekari eta ahalordedunei erakutsiko zaie

Mahaiburuak, boto-orria irakurri ondoren, mahaikide, artekari eta ahalordedunei erakutsiko die.

Notarioek, hautagaiek eta hautagai-zerrendetako ordezkariak boto-orriak eska ditzakete, mahaiko kideen aurrean aztertzeko, edukiari buruz zalantzarik izanez gero.

3. Gutun-azalen kopurua eta boto-emalleen zerrenda zenbakidunearan jaso diren boto-emalleen kopurua berdinak direla egiaztatuko da

Hauteskunde bakoitzeko botoen zenbaketa amaiturik, egiaztatu egin behar da hautestontzitik ateratako gutun-azalen kopurua eta hauteskunde horretan botoa eman duten hautesleen kopurua (boto-emalleen zerrenda zenbakidunearan daudenen kopurua) berdinak direla.

4. Boto-zenbaketaren aurkako erreklamazioak eta protestak ebatziko dira

Mahaiburuak galdetuko du ea inork protestarik egin nahi duen dena delako hauteskundeko boto-zenbaketaren aurka.

Boto-zenbaketaren aurkako protesta edo erreklamazioren bat aurkezten bada, mahaia ebatziko du, kideen gehiengoaz.

5. Boto-orriak suntsituko dira.

Boto-orriak suntsitu egingo dira jendaurrean.

Hala ere, EZ DIRA SUNTSITU BEHAR honako boto-orri hauek:

- Baliogabekotzat jo direnak (boto baliogabeak).
- Erreklamazioren baten xede izan direnak.

Suntsitu gabeko boto-orriekin hauxe egin behar da:

- Mahaiko kideek sinatu egingo dituzte.
- Bilkura-aktari erantsiko zaizkio (boto-zenbaketa amaitu eta akta egiten denean).
- Eta 1 zenbakiko gutun-azalean sartuko dira.



13. BOZKETAREN EMAITZA ADITZERA EMAN

Mahaiburuak, ahots ozenez, bozketaren emaitza aditzera emango du.

Hori egitean datu hauek eman behar ditu:

- Erroldatutako hautesleen kopurua (hautesle-erroldako zerrenda ziurtatuetan ageri direnak, bai espainiarren zerrendetan, bai, halakorik bada, atzerritarren zerrendetan).
- Erroldako zenbat ziurtagiri aurkeztu diren, atzerritarrenak ere barne (bereiz eman behar dira erroldatze-ziurtagirien kopurua eta akats materialak zuzentzeko ziurtagirien kopurua).
- Boto-emalleen kopurua.
- Boto baliogabeen kopurua.
- Boto zurien kopurua.
- Hautagai-zerrenda bakoitzak lortu dituen botoen kopurua.

Bilkura-akta egitean, **100 eta 250 biztanle bitarteko udalerrri edo kontzejuetarako hauteskundeetan**, kontuan hartu beharko da hautagaiek **lortutako botoak adierazi** behar direla, boto-kopuru **handienetik txikienera**.

2. Aktak sinatuko dira

Mahaiburuak, bi mahaikideek eta hautagai-zerrendetako artekariak sinatuko dituzte bilkura-aktak.

3. Bilkura-akten kopiak banatuko dira

Hautagai-zerrendetako ordezkariek, ahalordedunek, artekariak eta hautagaiek akten kopia berehala jasotzeko eskubidea dute.

HAUTESKUNDEETAKO AGIRIAK PRESTATU ETA AURKEZTEA. MAHAIAREN EGINKIZUNEN AMAIERA

16. Hauteskundeei buruzko agiriak dauzkaten gutun-azalak prestatu

17. Gutun-azalak aurkeztu



16. EGINDAKO HAUTESKUNDEETAKO BAKOITZARI BURUZKO AGIRIAK DAUZKATEN GUTUN-AZALAK PRESTATU

Aurreko lanak amaitu ondoren, egindako hauteskundeetariko bakoitzari buruzko agiriak prestatuko dira. Honela egingo da:

1. HAUTESKUNDEETAKO AGIRIAK HIRU GUTUN-AZALETAN BANATUKO DIRA

Egindako **hauteskundeetariko bakoitzeko hiru gutun-azal** egongo dira, eta hauteskunde bakoitzari buruzko agiriak dagozkien hiru gutun-azaletan sartuko dira.

A) 1 ZENBAKIKO GUTUN-AZALA

Hauteskunde bakoitzeko 1. gutun-azalean agiri hauek sartu behar dira:

- Mahaia eraketa-aktaren jatorrizko alea.

Mahaia eraketa-akta agiri bakarra da egingo diren prozesu guztietarako, Hauteskunde Mahaia ere bakarra delako. Horregatik, jatorrizko ale bat besterik ez da izango, eta hori Udalauteskundeetako 1 zenbakiko gutun-azalean sartuko da.

Mahaia eratzeko akta kopia-paperean egingo da eta mahaiko kideek behar beste ale edukiko dituzte gutun-azal guztiak prestatzeko eta kopiak jaso behar dituztenei kopiak emateko.

- Dagokion prozesuko bilkura-aktaren jatorrizko alea.

- **Bilkura-aktan aipatzen diren agiriak** (batez ere, boto-emaielen zerrenda zenbakiduna, eta boto-orri baliogabeak edo erreklamazioen xede izan direnak).

UDAL HAUTESKUNDEETAKO 1. GUTUN-AZALEAN HONAKO HAUEK SARTUKO DIRA, GAINERA

- **Erabili diren hautesle-zerrendak.**

Erabili diren hautesle-zerrenden ale bakarra egongo da mahaiaren dokumentazioan. Beraz, agiri hori Udal Hauteskundeetako 1 zenbakiko gutun-azalean baino ez da sartuko.

- Aurkeztu diren errolda-ziurtagiriak

Hautesle Erroldaren Bulegoko probintzia-ordezkaritzek ematen dituzte agiri horiek, hautesle-zerrendetan ez daudenek botoa eman ahal dezaten. Beraz, hautesle-zerrenden osagarritzat har daitezke eta horiekin batera sartu behar dira gutun-azal berean.

Horrela, bada, aurkeztutako errolda-ziurtagiriak Udal Hauteskundeetako 1 zenbakiko gutun-azalean sartuko dira.

- Artekarien izendapen-agiriaren taloiak (kopiak), edo, taloirik jaso ez bada, izendapen-agiriak berak.

Artekariak, izendapen-agiriaren taloiak edo izendapen-agiriak berak mahai bakar batean kreditaturik daudenez, agiri horiek ere Udal Hauteskundeetako 1 zenbakiko gutun-azalean sartuko dira.

B) 2 ETA 3 ZENBAKIKO GUTUN-AZALAK

Hauteskunde bakoitzeko 2. eta 3. gutun-azalean agiri hauek sartuko dira:

- Mahaiaren eraketa-aktaren kopia, eta
- kasuan kasuko bilkura-aktaren kopia

2. GUTUN-AZALAK ITXI ETA SINATUKO DIRA

Gutun-azalak itxi ondoren (hiru gutun-azal hauteskunde bakoitzeko), mahaiburuak, mahaikideek eta artekariak euren sinadura jarriko dute, hegalean gurutzatuta.



17. GUTUN-AZALAK AURKEZTU

1º HAUTESKUNDE BAKOITZEKO 1 ETA 2 ZENBAKIKO GUTUN-AZALAK LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIAN EDO BAKE EPAITEGIAN AURKEZTUKO DIRA

Mahaiburuak mahaiaren barrutiko Lehen Auzialdiko Epaitegian edo Bake Epaitegian aurkeztuko ditu hauteskunde bakoitzeko 1. eta 2. gutun-azalak.

Mahaiburuarekin joan ahalko dira mahaikide bat eta nahi duten artekariak.

Segurtasun Indar eta Kidegoek pertsona horiei lagun egingo diete eta, behar izanez gero, bidaia erraztuko diete.

Epailleak agiriak jasoko ditu eta hartu-agiria sinatuko du (hartu-agiria mahaiaren dokumentazioaren barruan egon behar da).

BEHIN 1 ETA 2 ZENBAKIKO GUTUN-AZALAK EPAILEARI EMANDA, AMAITU DIRA EPAITEGIRA JOAN DIREN MAHAIKO KIDEEN EGINKIZUNAK.

2º HAUTESKUNDE BAKOITZEKO 3 ZENBAKIKO GUTUN-AZALA POSTA ZERBITZUKO LANGILEARI EMANGO ZAIO.

Mahaikideetako bat, gutxienez, hauteslekuan egon behar da harik eta egindako hauteskunde guztietako 3 zenbakiko gutun-azala entregatu arte.

Posta Zerbitzuak langile bat bidaliko du hauteskunde-mahaira, 3 zenbakiko gutun-azalaren bila.

Posta Zerbitzuko langileak gutun-azala hartuko du eta hartu-agiria sinatuko du (hartu-agiria mahaiaren dokumentazioaren barruan egon behar da).

**EGINDAKO HAUTESKUNDEETAKO 3 ZENBAKIKO GUTUN-AZALA POSTA ZERBITZUKO LANGILEARI EMAN-
DA, AMAITU DIRA HAUTESLEKUAN GERATUTAKO MAHAIKIDEAREN EGINKIZUNAK.**

ORDENA PUBLIKOA

Hauteskunde-egunean behar-beharrezkoa da ordena publikoari buruzko arauak zorrotz betetzea eta mahaiburuak dauka arau horiek betearazteko ardura.

Hauteslekuaren barruan, are inguruetan ere, ezinbestekoa da ordenari eustea hautesleen boto-askatasuna bermatu ahal izateko.

1. Mahaiburuaren ahalmenak

Mahaiburuak hauteslekuaren barruan aginte osoa dauka ordena publikoari buruzko arauak zorrotz betearazteko, hautesleen askatasuna bermatuta egon dadin eta Legea bete dadin.

Horretarako, hauteskunde-mahaiko buruak esku hartzeko eskatu ahalko die hauteslekuak babesteko ardura duten Segurtasun Indar eta Kidegoei.

Segurtasun Indar eta Kidegoek, hauteslekuaren barruan zein kanpoan, mahaiburuari lagundu behar diote hala eskatzen badie.

2. Ordena publikoari buruzko arauak

Hauteslekuko sarrera beti egon behar da trabarik gabe eta irekita hauteslekura sartzeko eskubidea duten pertsonentzat.

Pertsona hauek dira hauteslekuetara sartzeko eskubidea dutenak:

- *Hautesleak, eta haien laguntzaileak, behar izanez gero.*
- *Hautagai-zerrendetako ordezkariak.*
- *Hautagaiak.*
- *Ahalordedunak eta artekariak.*
- *Notarioak.*
- *Agintaritzaren agenteak, mahaiburuak deituz gero.*
- *Hauteskunde-batzordeetako kideak.*
- *Instrukzioko epaileak eta haien eskuordeak.*
- *Administrazioaren ordezkariak.*

Gainerakoek mahaiburuaren baimena behar dute hauteslekuan egoteko.

Hauteslekura sartzeko traba egin dezaketen taldeak eratu daitezen eragotzi behar da hauteslekuan edo inguruetan.

Hauteslekuaren inguruetan ez da onartu behar boto-eskubidea askatasunez erabiltzeko oztopo izan daitekeen inor egotea. Mahaiburuak egokitzat jotzen dituen neurri guztiak hartu behar ditu hori eragozteko.

Inor ezin da hauteslekuan sartu armekin edo arma gisa erabil daitezkeen tresnekin, hauteslekua babestu behar duten agenteak izan ezik, mahaiburuak hala eskatuz gero

Ez hauteslekuan ez inguruetan ezin da hauteskunde-propagandarik egin.

3. Gorabeheren berri jasotzea bilkura-aktan

Hauteslekuko ordena hautsi duten gorabeherak bilkura-aktan jasoko dira eta horien eragileen izen-abizenak jarriko dira.